



LEZOKO ELKARTE SOZIO-EKONOMIKOAK

1. "LEZOTARRAK" SALTZAILEEN ELKARTEA

82.ean sortua da elkarte. Astean behin Batzorde Zuzendariaren bilera izaten da, hilean behin Asanblada orokorra eta derrigorrezko asistentzia eskatzen da.

Haseran 25 dendarik osatzen zuen elkarte eta dendari guztiei zabaldu zitzairen bazkide eskeintza eta "Asociación de Comerciantes de Guipuzcoa" erakundearekin batera elkartzen ziren.

Duela bi urtetik honuntz, bederatzi saltzaile elkartzen dira.



Elkartearen bazkide izateko baldintza bakarra Estatutoen arauak onartzea izango da. Behin elkarte utzi ezker ezinezkoa zaio bazkide ohiari sarrera berritzen.

Dendari berriari urtebeteko epea ematen zaio elkartearen bazkide izendatzeko, bitartean horretarako asmorik erakutsiko ez balu, eskubide hori galdu egingo luke.

Autofinantziazioa ere: Bazkide bakoitzak sarrera gisa 25.000 pezeta, ondoren, 10.000 pezeta hileroko ordaintzen du. Hauek aretoa ordaintzeko, hitzaldiak, zozketak...

Heuren helburuak hipermerkatu eta merkadiloen aurka dendariak elkartzea, horrela Lezo-ko herriari bizia emanez.

Aktibitateei dagokienez, kontsumoari buruzko hitzaldiak antolatu dituzte. EROS-KI-rekin harreman estuak edukitzea. Azkenik, komertzio iharduera bera eta gaur betetzen ez den Salneurrien bateratzea.

2. "ANTXILLASTEGI" PENTSU KOOPERATIBA

Duela hogei-bat urte sortua da kooperatiba, baseritarren artean eraturiko elkarte. Estatutoak badituzte eta erabakiak denen artean hartzen dituzte. Urtean behin egiten dituzte batzarrak eta Zuzendari Batzordea ere badute.

Egun 16 baserri dira alkartearen barruan, haseran gehiago ziren, baserriak hustutzeak begibistako eragina izan du elkartearen ere. Bazkide egin nahi duen guztientzako irikia da. Bazkideen adina 55-60 urte ingurukoa da.

Heuren ekintzak: Nafarroatik ekartzen dituzten aleak "garagarra, artoa, baba_, errotan pasa. Konpuetoak Azpeitiatik ekartzen dituzte eta abonoak ere. Garaian garaiko aleak ekartzen dituzte. Era honetan merkeago ateratzen zaie pentsua.

Almazenatzea, errota eta transportea heuren egiten dute. Kontabilitatea ere bai.

Heuren arazorik handiena etorkizun motza ikusten diotela baserriari.

Proiektuei buruz, inork nahi ez duenez ardura berririk bere bizkar, dagoenean irautea da.

*Rexu Mazusta "Lezoko elkarte sozialak"
1990ko otsaila*

